# Bergara /87

## PENTEKOSTES JAIAK



# *Agurra*

*1983/1987.- Lau urte bete dira jadanik egungo Udalbatza Bergara eta bergaratarren alde lanean hasi zenetik, eguneroko zereginean, etenik gabe, sortzen diren hainbat eta hainbat arazoei erantzuten. Gure gestioaren emaitzez gain, erabili dugun erizpidea gustiei eta salbuespenik gabe, berdin erantzutearena izan da.*

*Biziki bizitakoak izan diren lau urte hauetan zehar, makalaldirik gabe eta beti ilusio eta entusiasmoz beterik, Bergara hobetzeko eta guztion gogokoa izan dadin saiatu gara, gure ahalegin pertsonala ematea merezi zuela ziur gaudelarik.*

*Orain agur esateko ordua iritsi zaigu. Agur alai eta fidakor bat, Udalkide guztiok salbuespenik gabe, etapa honen azkenera betebeharra bete dugula eta kontzientzia lasaiarekin iristen geralako. Eta ez da gutxi.*

*Gure ideia pertsonal eta politikoak utzi gabe, lan talde sendarra, eraginkorra eta bateratsua sortzen jakin dugu. Gehiago oraindik. Adiskideak egin gara. Elkarrekin bizi izaten jakin dugu. Interes orokorren pean ezarri gara beti.*

*Pentekostes Jaiak direla eta Bergarako herri guztiari gure bizikide eta adiskidetasuneko gogoa eskaintzen diogu. Bergaratar guztiei jai hauetan atseden eta gozamen gehiena opa diegu eta jaiak guztiontzako elkarbizitza eta adiskidetasunean iragan daitezela.*

*AGUR T'ERDI*

*IMANOL BOLINAGA BENGOA*

EROSKI

denda bat

baino gehiago

López Ojeda Hnos. S.A.

PLANTA EMBOTELLADORA
Y
BODEGA DE CRIANZA
DE VINOS

VINOS AL POR MAYOR

VENTA-ALDEA
(BARRIO DE ALTOS HORNOS)

TELEFONO 76 27 76 - 76 38 52
APARTADO DE CORREOS, 106

BERGARA

Ford

BERRIA

SERVICIO OFICIAL
BERGARA

GAMA FORD - 87

VEHICULOS DE OCASION

SERVICIO DE GRUA

POLIGONO SAN LORENZO

Tel. 76 22 43

BERGARA

Toldos
LETE

EIBAR - MONDRAGON - DURANGO

NAHI GUZTIENTZAKO OLANAK

Zubieta, 36 bajo
Tel. 76 12 24

BERGARA

*Bergarako Udalaren izenean, oro har, eta batez ere Kultur, Kirol eta Jai Batzordearen izenean, lerro hauetatik honako hauei eskerrak ematea nahi dut publikoki:*

*DONATO GALLASTEGIri*

*urte hauetan zehar Pentekostes Jaietako egitaraua egiterakoan eman duen laguntzagatik, gure herriaren historian zehar Bergaran gertatutako irazkin eta anekdotak kontatuz.*

*Eta Jai Batzordeko partaideei:*

*— Luis Gutierrez*
*— Victor Alberdi*
*— Pako Garcia*
*— Felis Beitis*
*— Felis Iñiguez*

*beraiek gabe, lau urtetan zehar Udaletxe honek antolatu dituen ospakizunetan programaturiko ekintzak burutzea ezinezkoa izango zelako.*

*Pentekostes Jai Zoriontsuak!*
*opa dizkizuet.*

*KOLDO PEREIRA*
*Kultur, Kirol eta Jai Batzordeko Lehendakaria.*

# 1.987ko PENTEKOSTES JAIAK

Aspalditik gure herrian antolatzen diren jai eta ospakizunei esker, bergarako eskualdean arrakasta haundia duen Pentekostes Jaien hurbiltasunak "dantzan" jartzen nau Jai Batzordeak bururuturiko egitarauak alaitzeko aparteko datuak aurkitzeko.

Gustora egiten dudan lana da horretarako beharrezkoak diren elementuak aurkitzen baditut, baina ez da erraza izaten beti, zeren —lan honetan aritu naizen urteetan— jadanik kaleratuak ditut zenbait anekdota, bitxikeri eta gertakera zeintzuk Bergarakoa denari buruz dagoen harrobia agortzen ari bait dira.

Egoera honetan, uste dut ez zela inolako lelokeria izango atzera begiratzea eta toki honetara lehenago oso labur ezagutzera eman zengai bat edo beste bat ekartzea; eta, aldi berean, handik eta hemendik atera ahal ditudan beste batzuk tartekatzea.

Eta hortara goaz.

---

1987.eko urte honetan bergaratar ospetsu baten jaiotzaren 1. mendeurrena betetzen da, Eustaquio Azkarate - Askasua J.rena hain zuzen.

Beste aldi bat edo besteren batean, San Pedro elizako organua aipatu izan dut eta gogoratzen nituen Eustaquio J.ren emanaldi gozoak. Hauek, bukaezineko Bezperatan, gurasoen gorabidèrik gabeko erabakia zela eta joan beharra zegoenez, aspergarritasunetik ateratzen zizkiguten.

Zenbat eskertuko genuke, askotan bere fantasia liriko aberatsa askatua uzteko eta eztabaidaezineko meritua zuten aldaketak inprobisatzeko baliagarriak zitzaizkion, batez ere, euskal doinu haien interpretazioa!. Garai haretan salmodiak eta bezperatako liburuen nota monorritmikoak entzun zituen zeinek ez ditu gogoratzen San Pedro elizako organua, benetazko maisu baten sonoritateak ateratuz, inork bezala erabiltzen zuen organista haren "ilustrazio musikalak"?. Benetan sinesten dut salmo edo kantu arrunta usaia zuen guztia gaitzestera ez nintzela iritsi Eustaquio J.ren emanaldiak sortzen zizkidaten ahaztuezinezko inpresioei esker.

1.783ko Azaroaren 30ean, orduan Bergarako norabideak araupetzen zituen Udalak herriko kaleak lauzatzea erabaki zuen; lana ordaintzeko ezin ziren zerga berezietaz baliatu baina aldiz, eztabaidaezineko graziarekin, "Vino aventurero" deitzen zioten exakzio-elementu bat zuten.

Lauzatu behar ziren kale guztiak ondo neurtu eta banatutako zatietan zatitu ziren eta zera ezarri zuten:

> "Lauzaketa guztia ardo gorriaren hornitzaileen kontura izango zela eta horretarako Napar Ardoaren hornitzaileak 422 lauzaketa-"varak" eman beharko zituela; ardo zuriaren hornitzaileak 100 lauzaketa-"vara" bere komisionatuei Hiriak adierazten zaion tokietan eta pattar eta mistelaren honitzaileak, Hiriak bere komisionatuei adierazten dien lekuan, 200 lauzaketa-"vara" egin beharko dituela."

Hau ikusita, gero, jakina da "Vino aventurero" delakoari buruz gure arbasoek zuten lehentasuna: lehendabizi, Ardo Naparra; bigarren pattarra eta mistela eta azkenik ardo zuria.

Benetan, ezin zuten 1783.urteko edaleek, saltzen jartzen zituzten ardo eta pattarren gain Udaletxeak ezartzen zituen zergekin kexatu zeren, bide hobekuntza gisara, zenbatekoa beraien onurarako itzultzeaz gain, ahalegin guztia egiten zuen, horiekin, tabernatik irteterakoan ibilkera tinko eta orekatua errazteko.

---

1.862.urteko Ekainaren 5ean ospatutako bilkuran, ezarrita zegoen ohiturari jarraituz, Bergarak Udaletxean eta Pentekostes Jaietako bigarren egunean "DANTZALDIA EMATEA" erabaki zen. Udalbatzaren Idazkariari baimena eman zitzaion dantzaldia ospatzeko beharrezkoak ziren xedapenak hartzeko eta, horien artean, Aretoko lurra konpondu eta Erreginaren erretratuaren aurrean pabilioi bat jartzea. Udal funtzionariak, zalantzarik gabe, zuhurrak ziren zeren bapatean azaldu bait zuten 320 erreal kostatu zen APAINMAHAI bat erosita zutela 480 errealeko kostua zuelarik. Aipatu beherapenaren arrazoia, dirudienez, zera zen nahiz eta gutxi baina erabilita zegoela. "Kongresuak" lehendakari j.k. altzaria ikus zezala eta ondorioz hirirako eros zezala ebatzi zuen.

Dantzaldi hori benetazko gizarte-jaia izango zela suposatzen da, agintari eta herriko jende ospetsuak parte hartuko zutelarik. Lehenago dantzaldia, "Hiriak ematen zuela" esaterakoan ez da izan gure lerroetan enfasia jartzeagatik baizik eta aktan horrela jasoarazten zelako.

Izaera honetako dantzaldi bat Pentekostes jaien barruan egitea derrigorrez gertakaera garrantzitsua izan behar zuen, jende arruntarentzako enparantza publikoan edo basoko erromerietan egiten zirenetaz gain, horrelako Jaialdirik ez zela egongo uste dudalako nahiz eta pentsatzen hasiz gero garai haretan herrietan familia errealaren partaide baten urtebetetzea ere ospatu egiten zela bat konturatu.

Dena den, dantzaldi hauen iragarkiak Bergarako etxe askotako bizimoduan, urmahel batetako ur lasaietan jaurtitzen den harri batek sortzen duen bezalako eragitea sortuko zuen.

Asaldura gertakeraren aurretik eta ondoren. Lehendabizi, gonbidapena merezi izan zuten familietan urduritasunarekin eramandako prestaketengatik, ba sinestekoa da bertaratzea ez zela egingo leihatila baten erositako txartelak ematen duten eskubidearekin. Eta gero, jaian gertatutako gauzei buruzko irazkin eta kritikengatik, horietariko batek -zalantzarik gabe- zerikusia izango zuen, eta ez gutxi, zenbatasun eta nolakotasunez kontsideratutako partaideekin. Gonbidatuen hautaketa oso zaila izango dela uste dut. Lan hau egiten zuenari nahigabeak sortuko zizkion lana, bereziki garai haretan maila sozialei eta familiako pergamu minduei ematen zitzaion garrantziagatik.

1.862. urtean familia nabarigarriak gutxi izango zirenez eta beste aldetik, gertakera sozial honetara derrigorrez gonbidatuak izan beharko zirenez, honako ondorio hauetara iritsi behar da: langileak eta eskulangileak enparantzan dantzan egiten zutela, burgeseria txikiaren kideak Udaletxean egiten zuten bitartean eta aristokratak, gonbidapena izan arren, beraien aretoetan, jendearen zatatotsetik apartaturik, biltzen zirela; edo Udal dantzaldian Jaunek parte hartzen zutela eta gainera lanbide liberaleko biztanleek eta industrigizon batzuk eta egon zintezkeen errentalari eta gutxigorabehera ondo moldatutako merkatalgizonak. Baina hau horrela izan bazen, zer elementu eransleak balio ahal izan zuen lekuen hain gertu eta bergarako textuinguru sozialean hain urruti zeuden jendeen arteko onarpen itxurosoa lortzeko?...

Agian, erreal Seminarioan oraindik gelditzen ziren ikasle eta intelektualak?. Daitakeena da

---

Bergarako haurrek gehien miretsi izan duten gauzatariko bat Justizia ordezkatzen duen estatua izan da beti, zeina Epaitegiko Jauregiaren erremate bezala kokatua, Justa Anderea izenarekin ezagutu izan eta ezagutzen bait da.

Hala eta guztiz, askok Santa Justa deitu izan diote; eta badu bere azalpena, haurrek beraien ezjakitean, Justizia nola sinbolizatzen den ez zekitenez askoz logikoagoa iruditzen zitzaien andere agurgarri hura Santa Justa eta ez Justa Anderea deitzea. Azken izen honek ez ezer esaten eta horregatik bai edukin bai esangura aldetik hutsa azaltzen zitzaien.

Ziuraski, Mitologia erromatarraren jainkosa den Astreari dagokio. Ikonografian jator eta goiber itxurako amabirjina gisara agertzen da, esku baten balantza batekin eta bestean ezpata bilostu batekin. Eskultura aztertzen badugu erraza da Astrearen irudiarekin identifikatzea.

Bergaratarren artean, 1870.eneko Apirilaren 10ean ospatutako bilkuraren aktatik ateratzen denez, zeresan asko sortu zuen "Justa Anderea" honekin erlazionaturiko datu interesgarriak daude Udal artxiboan.

Marcial de Agirre bergaratar eskultoreak, Bergarako Udaletxeko Agintaria zenaren semeak zizelatua izan zen Erroman; horretarako, "Traventino de Civita Castellana" izenarekin ezaguturiko marmola erabili zen, gehiena bazalako gogorra eta iraunkorra kanpoaren gogortasunak kontraeusteko.

Estatuagatik (materialak barne) zenbat ordaindu behar zenari buruz eztabaida asko egon ziren eta baita ere nork izan behar zuen ordainketa egin behar zuenari buruz.

Lehendabiziko kuestioa ebazteko eta lanaren balio ematea egiteko, Ponciano Ponzano eta Francisco Bellver, "San Fernandoko Arte Ederretako Akademia Errealaren eskultura klasetik" zenbakidun akademikideak, izendatu ziren. Hauek, estatua zehatz aztertu ondoren nahiz aurrekaldetik nahiz alboetatik eta kontuan izanik "lanaen pentsamendu eta prestaera egokia eta bere egikaritza ona" 70.000 ardilarruko errealetan balioa eman zioten, hots, 17.500 pzta.

Akademikide biek aditasuna burutu zuten txukuntasunaren gorabehera bitxi eta argigarri bezala, interesgarria da beraiek beraien txostenean egin zuten honako baiezpen hau biltzea "beraien epain seguritate gehiago izateko, aurrekaldean zegoen etxe baten azoteara igo ziren aipatu estatua osatzen dituen pieza eta loturak, Udalerriko dependiente batek lekuan bertan estatua osatzen duten 3 piezetako azalera eta loturen gain hatzamarra pasatuz adierazitakoak, hobeto ikusi ahal izateko".

Bigarren puntu eztabaidagarria, Marcial de Agirre artistak bere lanagatik zor zitzaizkion pezetak erreklamatuz Udalbatzari zuzendutako idazki batzuren ondoren, Probintzi Batzordearen eritzpean jarri zen. Batzorde honen txostena, arrazonatua eta zehaztua, erabatekoal izan zen artistaren erreklamazioa ezetsi egin behar zela azaldu zuelako, komenigarria zitzaion lekuan bere ekintza aurrera aramateko zegozkion eskubideak libre utzirik. Erabaki honen oinarria zera zen, Udaletxeak estatua egitea agintu zuela agirik batek berarek ere ez zuela ziurtatzen.

Guzti hau erazko kuestio bat besterik ez zen izan, Udalbatzak Agirre J.ri zuzenki eskatutako kopuruaren ordainketa ukatzen bazion ere erabakita juen jadanik, Ospitalea zaharreko orubean, Epaitegiaren eraikuntza-lanak burutu ziren kontratistari ordaintzea.

Orain garbi uzteko gelditzen da nor izan zen Agirre eskultoreari lan hori agindu ziona. Nik, Joaquin de Agirre Udaletxeko Agintaria, artistaren aita, izan zela uste dut. Logikoena horrela izatea izango litzateke nahiz eta kontratistaren bitartekotza erabili. Marcial de Agirre Bergaran jaio zen 1.841. urtean eta 1.900. urtean hil. Erroman ikasi zuen eta lan honentsuen artean honako hauek ditu, San Inazio bat Azpeitian, Txurruka eta Okendo Almiranteak eta Pio IX bat eta Elkanoren estatua Getarian eta beste asko Nazioaren leku ezberdinetan banatuak. Bere jaioterrian ez zegoen bere eskulturarik. Zer aukera hobea ba, Justizia sinbolizatzen zuen Jainkosa baten irudiarekin Epaitegiko Jauregia errematatzea baino?.

Daitakeena baino gehiago da Agintaria kasu honetan soberatu egin zela, aitaldeko harrotasuna eta burututako egintza politikoak medio direla bere Udalkideen zalantzak gainditzeko; eta baita ere pentsa daiteke azken hauek behin estatua teilatuan ikusiz gero poztu egin zirela bergaratar artista gaztearen eskultura eder hura edukitzean.

Herriek jarraitzen duten lerroak askotan, zaletasun eta gustoie buruz iraupen gutxi eskaintzen du. Lerro hori eten edo puskatu ez bada egiten ere aldakortasun zig-zag bat marrazten du, bederen, nahiz eta zig-zag horrek, paradoxikoki, aldi berean finkotasun eza eta iraupen froga bat eduki, beti hasierako lerrora itzultze bat suposatzen duelako. Baina hemen aipatu behar dugun kasu honetan, Bergarak saihes eta okertasunik gabe jarraitu zuen eta jarraitzen duen bide zuzen bat marratu zuen.

Aipatzen ari gara musikarako zaletasuna, musikaren agerpide guztietan. Honen agiria, Bergarako Udalak 1.832. urtean ospatutako bilkuren akletan aurkitzen dugu. Otsailaren 19koan honako epigrafe hau duena aurkitzen dugu: "Filarmonikoen Memoriala 1.500 erreal eskatzen..."

"Bergaran kokaturik zegoen Konpainia Filarmonikaren musikalari eta zuzendariek" eraman zuten memoriala Udaletxera eta 1.500 ardilarruerreak eskatzen zuten "armonia osatu eta saioari irakasten ari diren batzuk okupatzeko" behar zuten tresneria erosteko.

Gainerako tresneria, "aurreko Udalen ekarpen eta partikularren harpidetzarekin" erosia izan zen. Udabatzak eskaera onartu eta eskatutako dirua ematea erabaki zuen urte haretako Eguberrian, "bere saioetan gordetzen duten portaera ona eta musikan aurreratu duten pila kontuan izanik..."

Memorialean, harpidedunek fidantza osoa azaltzen zuten Udalerriak, "bere hiriari hainbeste ohore egin eta bere exenpluz beste herri batzuei bertakoei irakatsiz mugitu arazi dion Konpania Filarmonikari" lagunduko ziolakoan.

Bapo da egiaztatzea 1.832. urtean Bergarak, urte batzuren esperientzia zeraman Musika Banda bat zuela; bere tresnak Udaletxeari eta herriaren harpidetzari esker erosiak zirela; bere exenplua beste herri batzuk jarraitu zutela era berdinean bere biztanleei musikan irakatsiz; eta musikoek 1.500 ardilarru erreal eskatzen zutela, ez ekintza musikalak ordaintzeko inoiz beraien jabetzakoak izango ez ziren tresna batzuk erosteko baizik.

---

Eta bukatzera goaz humore pizka batekin. Orain dela urte asko Bergaran ospaturiko ihauteri batzutan oso ospakizun bitxi bat prestatu zen. Erreal Seminarioaren arkupetan egin zen, Udal Musika Bandak bere aldizkako kontzertuak emateko kokatzen den leku berean.

Atrilak ohizko eran instalatu ziren, bakoitzean edozein lanaren "partizelekin". San Martin de Agirre Enparantzan paseatzen ari den jendeak, normala denez, musika emanaldia itzaron zuen baina hura izango zen beraien sorpresa aipatu dugun lekura asto batzuk zeramatela ikustean, pazientzia guztiarekin kokatuak izateko atrilen aurrean, bergaratar ezagun batek ospe guztiarekin, zuzendariaren podiumna okupatzen zuen bitartean.

Une haretan pertsona bat iritsi zen, ikusleentzako ezaguna zen likido bat barruan zeramaten ontzi haundi batzuekin eta bertan brotxa lodi bat busti ondoren, banan banan astoen muturrak igurtzi zituen. Ez da beharrezkoa izango likidoaren izena ezaguteraztea, irakurleen zorroztasunak Informazioa eza ordezkatuko duelako.

Egia da "ipso fakto" ikarragarrizko aharrantzak sortu zirela (Hizkuntz Akademiak dionaren arabera, aharrantza "astoaren ahotsa" da), horrelako gauzarik itxaroten ez zuen jendearen zarataren artean.

Sinetsiko didazue esaten badizuet hau egi egitakoa dela, ez dut udal aktetako liburuan irakurri.

**DONATO GALLASTEGI**


# BILTOKI

Les desea felices fiestas y les invita a visitar su sección de mobiliario y decoración de interiores en Barrenkale 12 y 20 y Plaza San Pedro s/n. Salas, comedores, tresillos, butacas, dormitorios juveniles y de estilo y los nuevos modelos de muebles de cocina y baño XEY.

Les esperamos para servirles en el equipamiento de su hogar, con la misma garantía y calidad que en los últimos 32 años.

Sección de electrodomésticos:
OTSEIN - FAGOR - PHILIPS - SIEMENS - MIELE - BOSCH

Sección de VIDEO - TV COLOR - SONIDO
Distribuidor Oficial: PHILIPS - FISHER - SABA - PANASONIC
Servicio técnico propio

CASA FUNDADA EN 1955

Plaza San Pedro s/n.
Teléfono 76 43 51

Barrenkale, 6 - 8 - 12 - 20
Teléfonos 76 25 96 - 76 34 00

**BERGARA**

# JOSE LAZPIUR S.A.

CONSTRUCCIONES MECANICAS

- **CONSTRUCCION DE MAQUINARIA ESPECIAL PARA ELECTRODOMESTICOS.**
- **CONSTRUCCION DE MAQUINARIA PARA TORNILLERIA.**
- **CONSTRUCCION DE MAQUINARIA TRANSFERT.**
- **UTILLAJE Y MAQUINAS ESPECIALES EN GENERAL.**
- **MAQUINARIA A CONTROL NUMERICO.**
- **EQUIPOS CONTROLADOS CON MICROPROCESADOR.**
- **DEPARTAMENTO DE MICROELECTRONICA**

Barrio San Blas, s/n. — Apartado 131 — Teléfonos 76 36 44 - 45 - 46
Telex 36754 LAZP E — Telefax 765169
**BERGARA**

# BERGARA HIRIKO UDAL ARGIKO JAI BATZORDEAK ANTOLATUTAKO FESTA ETA OSPAKIZUNEN EGITARAU OFIZIALA 1987

## EKAINAK 5, OSTIRALA

**Arratsaldeko 6etan:** Udaletxeko Pleno Aretoan
BERGARA HIRIKO III. ARGAZKI LEHIAKETAren
erakusketa-irekitzea.

**Arratsaldeko 8etan:** San Martin de Agirre Enparantzan eta Udal Musika Bandak alaiturik, TXAFLEROA bota eta BITORIANATXO jaitsiz jaiei hasiera emango zaie.

Ondoren, Udal Bandarekin KALEJIRA.

**Arratsaldeko 8,15etan:** Beheko geltokian kokaturik dauden Barrakak irekiko dira.

**Gaueko 11etan:** Irala Zineman, JAIALDI BIKAINA:
URIZAR-BADIOLA (Hegoameriketako musika)
SERGIO eta ESTIBALIZekin.

Ordu berean eta San Martin de Agirre Enparantzan ROCK KONTZERTUA ondorengo taldeek parte hartuko dutelarik:
FIEBRE
VIRUS DE REBELION

## EKAINAK 6, LARUNBATA

**Goizeko 9etan:** MARRAZKI ETA MARGOAREN VII LEHIAKETA, haize agerian eta 14 urtetik beherakoentzat.

**Goizeko 10etan:** Agorrosingo Atletismoko Pistan, ESKOLAKO ATLETISMOKO PENTEKOSTE TXAPELKETA.

**Goizeko 11etan:** Xake Taldearen Aretoan, Zabalotegiko Dorrean, ESKOLAKO XAKEKO TORNEOAREN FINALA.

**Aratsaldeko 4etan:** EUSKADIKO TALDEKAKO XAKE TXAPELKETA.

Ordu berean eta Udal Kiroldegian, SASKIBALOI partiduak ospatuko dira, maila ezberdinetan.

**Arratsaldeko 4,30etan:** Udal pilotalekuan, partiduak.

Ordu berean eta San Martin de Agirre Enparantzan, maila ezberdinetako FUTBITO partiduak burutuko dira.

**Arratsaldeko 7etan:** ERRALDOI ETA BURUHAUNDIAK.

**Gaueko 10,30etan:** San Martin de Agirre Enparantzan ONOFRI Taldeak alaituriko DANTZALDIA.

## EKAINAK 7, IGANDEA

**Goizeko 9etan:** Udal Txistularien ALBORADA.

Ordu berean "FONDO CARRETERA" deituriko GIPUZKOAKO TXAPELKETAren irteera, amateur mailentzat, Ondorengo bidea egingo duelarik:

*Bergara, San Prudentzio, Oñati, Udana Mendatea, Legazpia, Deskarga Mendatea, Antzuola, Bergara, San Prudentzio, Arrasate, San Prudentzio, Bergara. Irteera eta helmuga Espaloian izango da.*

Ordu berean, Udaletxeko Ekintza Aretoan, BERGARA HIRIKO TALDEKAKO XV. XAKE TXAPELKETA.

**Goizeko 11etan:** San Pedro Apostol elizan Pentekostesko meza nagusia.

Bergarako Seninarioko barneko patioan, kars kotxeak ibiltzeko bide berezi bat jarriko da.

**Eguerdiko 12,30etan:** Irala Zineman Udal Musika Bandaren KONTZERTUA ondorengo programarekin:

| | | |
|---|---|---|
| "DER FREISCHÜTZ" | Obertura | *Weber* |
| "MUSICA ACUATICA" | Suite | *Haendel* |
| | N.° 1 .... Allegro | |
| | N.° 2 .... Andante | |
| | N.° 3 .... Final | |
| "ANDANTE CANTABILE" | Cuarteto en Re | *Tschaikowsky* |
| "TRES INVENCIONES" | Suite | *Scheffer* |
| | *N.° 1 .... Flippant* | |
| | *N.° 2 .... Whimsical* | |
| | *N.° 3 .... Sorta mixed up* | |

*Director: Alfredo Gonzalez Chirlaque*

Ordu berean, Udaletxeko Pleno Aretoan, II. LITERATUR LEHIAKETA eta BERGARA HIRIKO III ARGAZKI LEHIAKETAren sari banaketa.

**Arratsaldeko 4etan:** Udal Igerilekuetan KAYAK-POLOko erakusketa partidua (piraguismo erakusketa).

**Arratsaldeko 4,30etan:** Udal Pilotalekuan, pilota partiduak.

**Arratsaldeko 6etan:** San Martin de Agirre Enparantzan, EUSKADIKO BIKOTEKAKO DANTZA ASKATUAREN X. TXAPELKETAren FINALA, 14 urtetik beherakoentzat.

**Gaueko 10etan:** San Martin de Agirre Enparantzan SUZKO ZEZENA.

**Gaueko 11etan:** Espaloian KAMP DANTZALDI BIKAINA TARANTELA ORKESTArekin.

Ordu berean, San Martin de Agirre Enparantzan IZADI Taldeak alaituriko DANTZALDIA.

Egunean zehar Hiriko kaleetan IPURTARGIAK TXARANGA arituko da.

## EKAINAK 8, ASTELEHENA

**Goizeko 9,45etan:** Hiriko kaleetan zehar, SOKAMUTURRA.

**Goizeko 11etan:** Seminarioko Jolaslekuan PUZTUTAKO GAZTELUAK eta OHE ELASTIKOA.

**Goizeko 11,30etan:** Udal Musika Bandaren KALEJIRA.

**Eguerdiko 12,30etan:** San Martin de Agirre Enparantzan, KONTZERTUA onderengo egitarauarekin:

| | | |
|---|---|---|
| (Altzasu) | Martxa | *A. Gonzalez* |
| Las Golondrinas | Pantomima | *Usandizaga* |
| MY FAIR LADY | Suite | *Loewe* |

*Zuzendaria: Alfredo Gonzalez Chirlaque*

**Arratsaldeko 4,30etan:** Udal Pilotalekuan, esku pilota partiduak.

**Arratsaldeko 5etan:** San Martin de Agirre Enparantzan, BIHAR Antzerki Taldeak "FANTASIA PUZZLEA" lana aurkeztuko du.

**Arratsaldeko 6etan:** San Martin de Agirre Enparantzan, HERRI KIROLAK.

**Gaueko 11etan:** San Martin de Agirre Enparantzan, KAMP DANTZALDIA FERNANDO BROSET ETA BERE ORKESTAk alaiturik.

Egunean zehar, Hiriko kaleetan INCANSABLES TXARANGA eta trikitilariak, bi bikote ospetsu, arituko dira.

## EKAINAK 9, ASTEARTEA

**Goizeko 9etan:** Udal Txistularien DIANA.

**Goizeko 9,30etan:** SOKAMUTURRA.

**Eguerdiko 12,30etan:** San Martin de Agirre Enparantzan ARANZADI Ikastolako DANTZARIEN emanaldia.

**Arratsaldeko 4,30etan:** Udal Pilotalekuan, pilota partiduak.

**Arratsaldeko 5etan:** San Martin de Agirre Enparantzan, JAI HERRITARRA.

**Arratsaldeko 7etan:** ERRALDOI ZANGALUZEAK.

**Gaueko 10,30etan:** San Martin de Agirre Enparantzan, LUMA Taldearekin DANTZALDIA.

**Gaueko 12etan:** San Martin de Agirre Enparantzan, BITORIANATXOren igoera.

Egun guztian behar zehar, INCANSABLES TXARANGA eta TRIKITILARIAK, bi bikote ospetsu, arituko dira.

OHARRA: Jai Batzordeak ez ditu bere gain hartuko, herriko jai egunetan, Bergaran, axolagabekeriaz, inprudentziaz edo beste arrazoiren batzuk medio direla gerta daitezken istripuak.

---

**HIZKUNTZA BAT EZ DA GALTZEN**
**EZ DAKITENEK IKASTEN EZ DUTELAKO**
**DAKITENEK HITZEGITEN EZ DUTELAKO BAIZIK.**

J. A. Artze

---


AITOR
AUTOMOVILES, S.A.

Talleres
y
Exposiciones

| | | |
|---|---|---|
| Tel. 762374 | Bergara | Torrekua, 2 |
| Tel. 79 95 65 | Mondragón | San Andrés, s/n. |
| Tel. 78 13 50 | Oñate | B.° Goribar, s/n. |
| Tel. 72 42 00 | Urretxu | Labeaga, 43 |

SU
CONCESIONARIO
PEUGEOT-TALBOT
PARA EL
ALTO DEBA
Y GOHIERRI

Vehículos
de
ocasión

OCASIONES DEL LEON

TALLERES
APAOLAZA

- REPARACION DE VEHICULOS
- Servicio Oficial NISSAN MOTOR IBERICA
- TACOGRAFOS KIENZLE
- NEUMATICOS GOOD YEAR MICHELIN PIRELLI FIRESTONE

ESTACION DE SERVICIO
SAN LORENZO

CARBURANTES - LUBRICANTES
ADITIVOS
LAVADOS DE COCHES Y FURGONETAS
Tels. 76 17 35 y 76 20 47
BERGARA

Zumelaga
jatetxea

*JAI ZORIONTSUAK*
*OPA DIZKIZUE*

San Antonio, 5 — Tel. 76 20 21

BERGARA

JAVIER
BILBAO

Distribuidor Oficial para la Zona:
— Cervezas San Miguel
— Agua Insalus
— Gaseosas La Pitusa
— Leche Ram
— Sidras Saizar

B.° San Cristobal s/n.
Tel. 76 14 23 (Domicilio) 76 25 90

BERGARA

# Saludo

*1983/1987.- Se han cumplido cuatro años desde que la actual Corporación Municipal ha venido sirviendo a los bergareses y a su pueblo, atendiendo los mil y un problemas que surgen, sin cesar, en el discurrir de los acontecimientos diarios. Independientemente de los resultados de nuestra gestión, ha imperado en nosotros el criterio de atender a todos por igual y sin excepción.*

*Han sido cuatro años, vividos intensamente, durante los cuales hemos bregado sin desfallecimientos y siempre llenos de ilusión y entusiasmo por un Bergara mejor y más a gusto de todos, teniendo el convencimiento de que la dedicación de nuestro esfuerzo personal bien merecía la pena.*

*Ahora nos ha llegado el momento de decir adios. Un adios alegre y confiado, ya que todos los corporativos, sin excepción, llegamos al final de esta etapa con la conciencia tranquila por el deber cumplido. Que no es poco.*

*Sin dejación de nuestros idearios personales o políticos, hemos sabido crear un sólido equipo de trabajo, eficaz y conjuntado. Más aún. Nos hemos hecho amigos. Hemos sabido convivir. Nos hemos supeditado siempre a los intereses generales.*

*Con ocasión de nuestras Fiestas de Pentecostés, ofrecemos nuestro espíritu de amistad y convivencia a todo el pueblo de Bergara. Deseamos a todos los bergareses el máximo disfrute y descanso durante estas fiestas y que todas ellas discurran para nosotros en términos de amistad y convivencia.*

*AGUR T'ERDI*

*IMANOL BOLINAGA BENGOA*

*En nombre del Ayuntamiento de Bergara en general y de la Comisión de Cultura, Deportes y Festejos en particular, quiero desde estas líneas, agradecer públicamente a:*

*DONATO GALLASTEGUI*

*por la gran ayuda y colaboración prestadas a lo largo de estos años en el programa de actos de las Fiestas de Pentecostés, con sus anécdotas y comentarios de hechos ocurridos en Bergara a lo largo de la historia de nuestro pueblo.*

*Los miembros de la Comisión de Festejos*

- *Luis Gutierrez*
- *Victor Alberdi*
- *Pako García*
- *Felix Beitia*
- *Felix Iñiguez*

*pues sin ellos, podemos decir, que no podríamos haber llevado a cabo todos los actos y festejos programados, a lo largo de estos cuatro años, con motivo de los distintos festejos organizados por este Ayuntamiento.*

*!Felices fiestas de Pentecostés!*

*KOLDO PEREIRA*
*Presidente de la Comisión de Cultura, Deportes y Festejos*

ASADOR
EGUZKITZA

MENUS DEL DIA

ESPECIALIDAD
CHULETAS DE BUEY
PESCADOS ASADOS

Arane-Erreka, 30
Teléfono 765603 - 763870 (domicilio)

BERGARA

Carnicería y Charcutería
JUAN MARI
LETURIA

Zubiaurre, 23 - Tel. 762876
San Pedro, 30 - Tel. 761223
BERGARA

EGVZKIGRAF
KOOP. E.
S. COOP.

TIPOGRAFIA - OFFSET INDUSTRIAL

Polígono Basabe, A-2-7
Teléfonos 79 29 41 - 79 18 44
ARETXABALETA

## PASCUA DE PENTECOSTES - AÑO 1987

La proximidad de la fiesta de Pascua de Pentecostés, de mucha resonancia en la comarca bergaresa, a causa, sin duda, de los festejos feriales que se organizan en nuestro pueblo desde hace muchisimo tiempo, suele ponerme en "danza" a fin de buscar datos curiosos que sirvan para amenizar los programas confeccionados por la Comisión local de festejos.

